


EUSKAL AEKO INDUSTRIA PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2014ko uztaila

Euskal AEko industri jarduera %1,6 gehitu zen 2014ko uztailan

Euskal AEko industri produkzioaren indizea, aurreko hilarekin alderatuta %1,3 gehitu zen

Eustatek landutako datuen arabera, 2014ko uztailan %1,6 gehitu zen Euskal AEko industri produkzioa lan-egutegiko baldintza homogeenetan, 2013ko hil beraren aldean. Urtaroen eragina zuzenduta, %1,3 gehitu zen Euskal AEko industri produkzioa, 2014ko ekainarekin alderatuta.



2014ko uztailleko indizearen bilakaerak, 2013koaren aldean, joera ezberdina izan du industri talde handietan. Kontsumo-ondasunak lehengoan (%0,0) guztira; Kontsumo-ondasun iraunkorrak %-15,7, Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak %7,7 gehitu ziren. Ekipo-ondasunak %1,0 jaitsi ziren; Bitarteko ondasunak %4,1 gehitu eta Energia %0,9.

2014ko uztailleko hil arteko aldakuntza, 2014ko ekainaren aldean, oso bestelakoa izan da industri talde handietan. Energia %2,7 jaitsi zen, Bitarteko ondasunak %2,8 gehitu, Ekipo-ondasunak %2,3, Kontsumo-ondasunak %2,3. Azken horien barruan, Kontsumo-ondasun iraunkorrak %3,1 gehitu ziren eta Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak %2,1.

Euskal industriako pisurik handieneko sektoreen artean, hazkunderik handienak 2014ko uztaillean, urte artean: Zura, papera eta arte grafikoak, %8,1, Elikadura industriak, edariak eta tabakoa %5,4; Makineria eta ekipoa %4,3, Metalurgia eta metalezko produktuak %4,2.

1. taula. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea Sektore nagusiak. Urte arteko aldakuntza-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	4,2
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-4,1
09 - Kautxua eta plastikoak	2,2
13 - Makineria eta tresneria	4,3
14 - Garraio-materiala	-10,6
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	5,4
12 - Material eta tresneria elektrikoa	-12,7
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	8,1

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea

Jaitsierarik handienak: Material eta Ekipo elektrikoa urte arteko %12,7; Garraio materiala, %10,6.

Uztailleko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaera positiboa izan da Bizkaian (%2,5) eta Gipuzkoan (%3,8). Araban %4,3 jaitsi da, Garraio-materialagatik, zeina %34,2 jaitsi baitzen. Hil artean, 2014ko ekainaren aldean: Gipuzkoan %3,1 gehitu, Araban %0,3, Bizkaian %0,0.

2. taula. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea. Aldakuntza-tasak. 2014 uztaila. Behin-behineko datuak

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazionalizatuak	
	Uzt2014/Uzt2013	M(Uzt2014)/ M(Uzt2013)*	Uzt2014/Eka2014	Eka2014/Mai2014
Indize orokorra				
Euskal AE	1,6	0,6	1,3	0,1
Araba/Álava	-4,3	0,3	0,3	-2,6
Bizkaia	2,5	-0,2	0,0	-0,9
Gipuzkoa	3,8	1,5	3,1	2,5
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	0,0	-2,9	2,3	-3,9
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-15,7	-18,4	3,1	-2,3
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	7,7	3,9	2,1	-4,4
Ekipo-ondasunak	-1,0	-0,3	2,3	1,3
Bitarteko ondasunak	4,1	3,1	2,8	-0,7
Energia	0,9	-3,0	-2,7	1,0

(*) 2014ko urtarrietik oraingo hilerak arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2013ko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Euskal AEko industria produkzioaren indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizeari (IPI) buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizeari (IPI) buruzko datu-bankua